



**SALBATORE
MITXELENA**

ikastola

ALERGIA
PROTOKOLOA

ALERGIA KASUENTZAT PROTOKOLOA (2017-2018)

- **KARPETA:** Alergia larria duten haurren geletan honen inguruko informazioa duen karpeta bat egongo da. Bertan adierazten dira: haurraren nola azaltzen diren sintomak, zer egin kasu honetan eta material egokiaren zerrenda.
- **JARRAIPEN ORRIA:** Hilero beteko du administrari orokorrak
- **INTZIDENTZIEN ORRIA:** Protokoloaren karpeta eta Idazkaritzan egongo da eta protokolo hau betetzen ez den kasu bakoitzean dagokionak bete beharko du administrari orokorrari adieraziz.

IKASTURTEA HASI BAINO LEHEN (IRAILA)

- Alergia duten haur guztiak identifikatuta izan.
- Irakasleekin hitz egin jakitun izan daitezten.
- Gelako materiala Immunitas Vera-ren txostenarekin kontrastatu.
- Almazeneko materiala Immunitas Vera-ren txostenarekin kontrastatu.
- Garbitasunerako erabiltzen den materiala egokia den ikusi.
- Haurra lehenengo aldiz ikastolara datorrenean **gurasoekin bilduko da** etapako koordinatzailea edo zuzendaria.
- Mailako irakasleekin bilduko da koordinatzailea eta egoera adierazi protokoloa aztertuz.
- Formazioa jaso (Immunitas Vera): klaustro mailan eta gurasoekin.
- Irakasle eta haurraren egongo diren pertsona guztiei protokoloa azaldu eta botikak non dauden adierazi. (Manifestaciones clínicas de una reacción alérgica)
- Arrisku handia duen haurren geletan adierazgarri bat ipini (plastifikatutako karratu gorria). Gela guztietan toki berdinean (gelako atearen goiko aldeko markoaren erdian) DBHn izan ezik (irakasle gelan denen bistan) eta haurraren informazioa non dagoen gordeta (DBH: irakasleen gelako armairuan, LH: irakaslearen mahaiko lehenengo kaxoian, HH: geletan) adierazi.
- Ikastola saiatuko da beti, aurreko ikasturtean bezala, praktikatuko ikasleren bat gela horretan egotea. (Nahiz eta tarteak egongo dira non hori posible izango ez den)
- DBHkoak: jolas-garaia orduan beheko eremura ez dira jaitsiko.
- Erreakzio bat emango balitz haurra bakarrik ez utzi, tratamendua eman, 112ra deitu eta gurasoak abisatu.
- Gogoratu etapetan, emanaldi garaietan, beheko eremura ezin dutela hamaiketako jaitsi.
- Egun osoko irteeretan, talde horrekin, beste pertsona bat joango da laguntzaile gisa.

GURASOEKIN BILERA:

- Medikuaren txostena ekarri behar dute. Egoera aztertu eta azaldu zein diren ikastolan hartutako neurriak eta ea besteren bat hartu behar den, kasuak kasu.
- Behar den botika ekarri behar dute erabiliko dituen zerbitzuen arabera.
- Sendagaiak emateko baimena sinatu.
- Gurasoei argi eta garbi adierazi zenbait egoera:
 - **San Tomas** eguna (txorizo bokadiloa jaten dugu, berak ogia jan dezake (gurinik ez badu) eta txorizoa ere. Ondoren, Olentzerok banatzen duen Txupa Txupsaren ordean haurarentzat egokia edo gurasoak ekarritako zerbitzu banatuko zaie.
 - **Inauteriak** (txokolatezko ogitartekoa banatzen dugu, haurarentzat egokia den zerbitzu ekarriko dute gurasoek edo guk... eta hauetan zaila egingo zaigula ingurune guztia kontrolatzea ere adieraziko zaio.

Egun berezi hauetan pertsona bat (praktiketako...) ondoan egongo da gertutik "kontrolatzeko"...

- Haurren beharrak zein izango diren: jangela, siesta, autobusa,... zehaztu eta identifikatu.
- Haurrak etxean krisialdiren bat izan badu, haurrekin kontaktua duen ikastolako lehenengo pertsonari adierazi, edo telefonoz abisatu tutoreari larria dela adieraziz.

SAN PELAION:

PORTXEETAN:

- Gelatan eta Plazan janaririk ez sartu.
- Haurrek geletara ekartzen dituzten jakiak irakasleak jasoko ditu ahal den neurrian.
- Haurrek geletara ekartzen dituzten makillajeak irakasleak jasoko ditu ahal den neurrian.
- Mantenuko arduradunak Plazaren aurreko eremua 9:00ak baino lehen egunero garbituko du.
- Ospakizunetan, egokiak diren gailetak ekarriko dituzte haurrek. Ospakizuna berdin-berdin egingo da: plastilinazko tarta kandelekin, kankak, gailetak banatu...Ezin dira ohiko bizkotxo eta horrelakoak ekarri.
- Geletako ateetan (barruko aldetik) adierazgarria egongo da.
- Beste ikasleak sentsibilizatuko dira eta informazioa eman.

1. SOLAIRUKO GELETAN (HH5-LH1-LH2) ETA PASILLOAN

- Hamaiketakoa: Fruta (HH5en zatitua, LH1-2an bakoitzak berea). Astean bitan beraiek bidalitako zerrendaren arabera gailetak ere ekar ditzakete. Beraz, 3 egunetan fruta eta beste bitan gailetak jateko aukera izango dute ikasleek, nahi duenak 5 egunetan fruta.
- Urtebetetzeak ospatzeko gaileta bereziak (Zerrenda bidaliko da).
- Parkea: garbitu jolas ordurako.

GELAN:

- Ikasturtea hasi baino lehen tutorea eta gela horretan sartuko diren pertsona guztiak informatuta egongo dira eta protokoloaren jakitun izango dira.
- Gelan adierazgarria jarri eta informazioa non dagoen ziurtatu.
- Haurraren informea eta tratamendua ezagutuko du irakasleak
- Gelako eskola materiala eta garbitasuneko egokiak direla ziurtatuko da.
- Haurraren edalontzia beste kolore batekoa izango da eta berak bakarrik erabiliko du.
- Hamaiketako egokia ekarriko dute egunero.
- Beste ikasleei informazioa eman (ulertzeko moduan) eta egoerarekin sentsibilizatu.
- Gelako beste jardueratan ondo aztertu materiala, jakiak...eta egokiak direla ziurtatu (globoak, arrain janaria...)
- Gelako haur eta irakasleak makillajea zaindu beharko dute, gelan egongo da egokia

MUSIKA GELA:

- Ikasturtea hasi baino lehen musikako irakasleari ikaslearen informazioa eta protokoloaren berri emango dio koordinatzaileak.
- Sintomatologia eta adrenalinarekin administrazioaren inguruko informazioa karpeta batean egongo da gela honetan.
- Adrenalina non egongo den adostuko dugu. (Ikaslea jangelan gelditzen bada bertakoa erabil daiteke, horrela ez bada musika gelan egongo da).

OSPAKIZUNAK:

- Ospakizuna berdin-berdin egingo da: plastilnazko tarta kandlekin, kantzak, gailetak banatu...
- Ezin dira ohiko bizkotxo eta horrelakoak ekarri.
- Urtebetetzeak ospatzeko egokiak diren gailetak ekarriko dituzte hurrek.
- Bere gelako haurrak aurpegia makilatu gabe etorriko dira, gelan egongo dira margo egokiak.
- **San Tomas** eguna: Txorizo ogitartekoa jaten da (orientazio departamentukoekin hitz egingo da haur hauentzat egokia dena prestatzeko).
- **Olentzero**: Banatzen den Txupa Txups-aren ordeztu haurarentzat egokia dena edo gurasoak ekarritako zerbait banatuko da.
- **Inauteriak**: ogia txokolatearekin emango zaie. Haurarentzat egokia den zerbait ekarriko dute gurasoek edo guk.
- Egun berezi hauetan, ingurune guztia kontrolatzea zaila denez, 2. pertsona bat haurraren ondoan egongo da gertutik kontrolatzeko.

Etapako haur guztiak geletan margotuko dituzte aurpegiak (guraso guztiei horrela adieraziko zaie ohar batean) eta hamaiketako jaterakoan (ogia txokolatearekin) pertsona bat egongo da alergiaz duten haurren ondoan. **Adi Inauteri eta ikasturte bukaerako emanaldiekin, beste etapetako ikasleak beheko eremura ezin dute hamaiketako jaitsi ez beraien entsegutara eta ezta ere txikien entseguak ikusterakoan.**

IRTEERAK:

- **San Martinera**: goiz-buelta izaten da eta etapa guztia joaten da. Bakoitzak bere hamaiketako eramaten duenez, pertsona bat egongo da haurrarekin.
- Edozein goiz-bueltan, hamaiketakoarekin edo egun-pasa den irteeretan ere berdina jokatuko da.

JANGELA:

- Jangelako pertsonala informatu eta protokoloa zein den adieraziko du administrari orokorrak.
- Haurraren informea eta tratamendua non egongo den erabaki eta adierazi.
- Platera, koilara, labana, edalontzia eta sardexkak bereziak izango dira, berak bakarrik erabiliko dituenak, kolore diferentea dute denek jakiteko bereak direla.
- Haurraren gurasoekin hitz egin jakiteko ze markako janariak erosi behar dituen sukaldariak, bere bazkaria ikastolan prestatzen denean.
- Jangela txikian (HH3, HH4 eta HH5eko haurrak):
 - ❖ Ikaslea mahai buruan eseriko da.
 - ❖ Bere mantala aparteko leku batean gordeko da.
 - ❖ Bere inguruan "txukun" jaten duten laguntxoak eseriko dira.
 - ❖ Bere ardura duen begiralea beharrezkoa denean bakarrik mugituko da eta kasu horretan beste begiraleak adi egongo dira.
 - ❖ Bukatzean bera joango da lehenengo komunera garbitzera eta denak

- elkarrekin deskantsu gelara.
- ❖ Deskantsu gelan bere hamaka koloreko zinta batekin bereizita egongo da eta besteen gainean jasoko da beti.
 - ❖ Haurraren kuxintxoia eta manta aparteko poltsa batean gordeko dira.
 - Haur alergikoen jakiak prestatzeko eta zerbitzatzeko sukaldeko eta jangelako tresnak bereziak izango dira eta horretarako bakarrik erabiliko dira.
 - Haur hauentzako diren jakiak gordetzean desberdinduko dira.
 - Haurraren menua gurasoei helaraziko zaie: web orrian,...
 - Sukaldean arraina prestatzen denean jangela handian bazkaldu dezake? Gurasoekin kontrastatu, kasuak kasu.

AUTOBUSA:

- Administrari orokorrak zerbitzu honetaz arduratzen diren pertsonak informatuko ditu egoeraz (autobusean, ikastolan...) eta protokoloa zein den adierazi ere.
- Pertsona hauek formatu, tratamendua non egongo den ziurtatu.
- Autobusean doan begiraleak motxila batean eramango du beti sendagaia beharra daukan haurren batek zerbitzu hau erabiliko balu.
- Haurra aurreko eserlekuetan kokatuko da begiralearen ondoan, hasieran behintzat edo txikia baldin bada.

ZAINZA:

- Administrari orokorrak zerbitzu honetaz arduratzen diren pertsonak informatuko ditu eta protokoloa zein den adieraziko die ere.
- Pertsona hauek formatu, tratamendua non egongo den ziurtatu, beti ere beharra daukan haurren batek zerbitzu hau erabiliko balu.
- Gosaltzeko ekarri dezaketena gurasoei adierazi (zerbait ekartzekotan).

AZKEN PORTU:

GELAN:

- Tutorea eta gela horretan sartuko diren pertsona guztiak informatu eta protokoloa zein den adierazi.
- Gelan adierazgarria jarri eta informazioa non dagoen ziurtatu.
- Haurraren informea eta tratamendua eskura izan.
- Gelako eskola materiala eta garbitasunekoak egokiak direla ziurtatu.
- Haurraren edalontzia beste kolore batekoa izango da eta berak bakarrik erabiliko du.
- Egunero hamaiketako egokia ekartzen dutela ziurtatu.
- Beste ikasleen sentsibilizazioa eta informazioa eman (ulertzeko moduan).
- Gelako beste jardueratan ondo aztertu materiala, jakiak... Egokiak direla ziurtatu (globoak, arrain janaria...)

OSPAKIZUNAK:

- Urtebetetzeak ospatzeko, egokiak diren gailetak ekarriko dituzte hurrek, ospakizuna berdin-berdin egingo da: plastilnazko tarta kandlekin, kantik, gailetak banatu...(ezin dira ohiko bizkotxo eta horrelakoak ekarri).
- Bere gelako hurrak aurpegia makillatu gabe ekarri, gelan egongo dira margo egokiak.
- **San Tomas** eguna (txorizo ogitartekoa jaten dugu (orientazio departamentukoekin hitz egin haur haurrentzat egokia dena prestatzeko) ere. Ondoren Olentzerok banatzen duen Txupa Txupsaren orde haurarentzat egokia edo gurasoak ekarritako zerbait banatuko zai. **Inauterietan** hamaiketarako haurarentzat egokia den zerbait ekarriko dute gurasoek edo guk... **Inauterietan ere** eraikuntzako haur guztiak geletan margotuko dituzte aurpegiak (guraso guztiei horrela adierazi zaie ohar batean).
- Edozein parkeetara joaterakoan gelan dagoen laguntzailea aurretik joango da jakirik ez dagoela ziurtatzeko.

JANGELA:

- Jangelako pertsonala informatu eta protokoloa zein den adierazi.
- Haurraren informea eta tratamendua non egongo den erabaki.
- Platera, koilara, labana, edalontzia eta sardexkak bereziak izango dira, berak bakarrik erabiliko dituenak. Hauek kolore desberdina dute denek jakiteko bereak direla.
- Haurraren gurasoekin hitz egin jakiteko ze markako janariak erosi behar dituen sukaldariak, berak bazkaria ikastolan prestatzen duenean.
- Ikaslea mahai buruan eseriko da eta inguruan "txukun" jaten duten laguntxoak jarriko dituzte. Begiralea ez da jangelatik aterako, ez sukaldaria, ez komunera... eta bera izango da haurraren ingurua begipean izango duena. Bazkaria bukatzean lehenengoa izango da komunera garbitzera joango dena eta ondoren besteak, eta elkarrekin deskantsu gelara. Hemen, erabiliko duen hamaka koloreko zinta batekin

identifikatuta dago eta beti beste guztien gainean jasoko da eta bere kuxintxo eta manta aparteko poltsa batean jasoko dira. Jangelako mantala ere aparteko armairu batean. **Guzti hau azaltzeko administrari orokorrak haurren begirale izango direnekin elkartuko da eta informazio emango die.**

- Haurren menua gurasoei helaraziko zaie (web orrian...)
- Haur alergikoen jakiak zerbitzatzerakoan sukaldeko eta jangelako tresnak bereziak izango dira eta horretarako bakarrik erabiliko dira.

IXPILLAN:

GELAN:

- Tutorea eta gela horretan sartuko diren pertsona guztiak informatu eta protokoloa zein den adierazi.
- Gelan adierazgarria jarri eta informazioa non dagoen ziurtatu.
- Haurraren informea eta tratamendua ezagutu.
- Gelako eskola materiala eta garbitasunekoak egokiak direla ziurtatu.
- Haurraren edalontzia beste kolore batekoa izango da eta berak bakarrik erabiliko du.
- Hamaiketako egokia ekarriko dute egunero.
- Beste ikasleen sentsibilizazioa eta informazioa eman (ulertzeko moduan)
- Gelako beste jardueratan ondo aztertu materiala, jakiak... Egokiak direla ziurtatu (globoak, arrain janaria...)

OSPAKIZUNAK:

- Urtebetetzeak ospatzeko, egokiak diren gailetak ekarriko dituzte hurrek, ospakizuna berdin-berdin egingo da: plastilinazko tarta kandlekin, kantak, gailetak banatu... (ezin dira ohiko bizkotxo eta horrelakoak ekarri).
- Bere gelako haurrak aurpegia makillatu gabe ekarri, gelan egongo dira margo egokiak.
- **San Tomas** eguna (txorizo ogitartekoa jaten da (orientazio departamentukoekin hitz egin haur hauentzat egokia dena prestatzeko) eta ondoren, Olentzerok banatzen duen Txupa Txupsaren ordeztu haurrarentzat egokia edo gurasoak ekarritako zerbait banatuko zaio.
- Inauteriak, haurrarentzat egokia den zerbait ekarriko dute gurasoek edo guk... **Inauterietan**, eraikuntzako haur guztiak geletan margotuko dituzte aurpegiak (guraso guztiei horrela adieraziko zaie ohar batean)
- Edozein parkeetara joaterakoan gelan dagoen laguntzailea aurretik joango da jakirik ez dagoela ziurtatzeko.